



Usurbilgo Udala



**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2015EKO OTSAILAREN 24AN**  
**GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

**BERTARATUAK:**

**Alkatea:** Mertxe Aizpurua Arzallus.

**Zinegotziak:** Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

**Idazkaria:** Nagore Sarasola Otermin.

**Ezin-etorria adierazi dute:** Jose Maria Rivadeneyra Siciliak eta Josu Portu Alzagak.

**1.- JOSE LUIS URKIA ZABALA ETA JUAN RAMON URKIA ZUMETA JAUNEI, TEILATUPEAN ETXEBIZITZA BAT MOLDATUZ GAZTELU BASERRIA ERABERRITZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2014-0441

JOSE LUIS URKIA ZABALA eta JUAN ARAMON URKIA ZUMETA jaunek, Gaztelu baserria eraberritzeko udal baimena eskatu dute.

**AURREKARIAK**

Alkatetzak, 2014ko maiatzaren 13an, 2014/0426 dekretuaren bidez, Aginagako Gaztelu baserria eraberritzeko aukeraz egindako hirigintza kontsultari udal arkitektoak zein udal aholkulari juridikoak bere txostenetan ezarritakoaren arabera erantzutea erabaki zuen.

**OINARRIZKO PROIEKTUA**

2014ko urriaren 16an berriz, dagokion udal baimena eskatzearekin batera, Jose Miguel Toledo Etxepare arkitektoak idatzitako Oinarrizko Proiektua aurkeztu dute.

Eskaera eta espedienteko dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Joxean Erasun Arancón jaunak, ondoko txostena eman du:

**BULEGO TEKNIKOA**  
**Udal Teknikariak Alkate andreari**  
**OBRA HAUNDIAK**  
**GAZTELU BASERRIAREN BERRERAIKITZEA ETA LURSAILARI**  
**DAGOZKION INSTALAKUNTZEN HORNIKETA OINARRIZKO**  
**PROIEKTUARI TXOSTENA**

---

KOKAPENA: Gaztelu baserria, Usurbil  
ESKAERA DATA: 2014ko urriaren 16a  
ESKATZAILEA: Jose Luis Urkia Zabala



Usurbilgo Udala



ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ,04/2014-0442

AURREKONTUA: **106.210,65 € (PEM)**

HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA: **869,61 €** Fidantza (%120): **1.043,53 €**

---

### AURREKARIAK

- 2013ko urriaren 31n Jose Ramon Urkia jaunak hirigintza kontsulta egin zuen, Gaztelu baserria birgaitzearen inguruan.
- 2014ko urriaren 16an Jose Luis Urkia Zabalak Gaztelu baserria birgaitzeko udal baimena eskatu du, eta horretarako beharrezkoa den proiektua aurkeztu.

### TXOSTENA

Interesdunak aurkeztutako dokumentazioa honako hau da: eskaera orria eta Gaztelu baserria birgaitzeko Oinarrizko Proiektua eta Exekuzio Proiektua (1. Fasea) (arkitektoak izenpetua eta dagokion Elkargo Profesionalak ikus-onetsia 2014-10-09). Proiektuak, era berean, honakoak barneratzen ditu: Memoria, Baldintza Plegua, Neurketak eta Aurrekontua, Segurtasun eta Osasun Azterlana, Hondakinen Kudeaketarako Azterlana eta planoak.

Gaztelu baserrian bi etxebizitza egokitu nahi diren arren, lehen faseari dagokion solairupeko etxebizitza gauzatzeko baimena eskatu nahi da orain. Horrez gain, eraikinaren egitura birgaitzea eta instalazioen erreforma aurreikusten da.

Baserria birgaitzearekin batera, garai desberdinetako orto-argazkien bidez dokumentatutako eraikinaren jatorrizko bolumena berreskuratu nahi da; horretarako, dolarean egindako handitzearen eraistea proposatzen da, baita erortzeko zorian dagoen jatorrizko eranskina ere.

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu eta gero, honakoa esan daiteke:

- **BASERRIAREN BIRGAITZEA:** Proiektuak proposatutako esku-hartzea indarrean diren arau subsidiarioen 52. artikulua justifikatua da: *“Lurzoru ez urbanizagarrian dauden baserrien birgaitzea eta beraien balioa agerian jartzea bermatzeko helburuarekin, hauen mantentze eta finkatzeari begira, beraien azpizatiketa, gehienez ere bi etxebizitza eraikin bakoitzeko, onartzen duten birgaitze edo eraberritzeak baimendu ahal izango dira, beti ere baserriak Jabego Erregistroan inskribatuta badaude eta ordenazioz kanpo deklaratuak ez badaude. Azpizatiketak eraikuntzari bakarrik erasango dio, azpizatiketa baino lehenagoko partzelatzea mantenduz, eta indarrean dagoen legeriak ezarritako baldintzak beteaz egingo da”.*
- Aurrekariak aintzat hartuta (ikus 2014ko maiatzaren 13ko 2014/0426 Dekretua), ez dago eragozpenik baserrian bi etxebizitza egokitzeko.
- **ESKU HARTZE MOTA:** Indarrean diren Usurbilgo Hiri Antolamendurako Arau Subsidiarioen Testu Bateratuaren arabera, Gaztelu baserria Oriako Itsasadarraren Ertzen Babeseko lurzoru ez-urbanizagarrian



Usurbilgo Udala



kokatzen da. Horrekin batera, 69. artikulua *Herri mailako interesa duten beste ondasun higiezin*en zerrendan barneratzen du, eta beraz, 70. artikuluan finkatutakoari jarraiki, esku-hartze erregimena *Erreforma* da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariko 317/2002 dekretuaren arabera. Bertan, honela definitzen da *Erreforma* edo *Berriztatzea*:

*“Berriztatzea*

*Berriztatzea eraikuntzako esku-hartze bat da, sendotzeko esku-hartzearen kasuan adierazitakoez gain, honako helburuetakoren bat edo guztiak dituena:*

*a) Barruko espazioen banaketa eta antolamendua aldatzea, aldaketak instalazio teknologikoak eta higiezinaren eta osasunaren ingurukoak barne hartzean egindako egokitzapenak baino harantzago doazenean.*

*b) Ondorengo egitura-elementuen kokapena, kota, forma eta dimentsioak aldatzea:*

*Barruko hormak eta gangak.*

*Pilareak, forjatuak eta gangak.*

*Eskailerak.*

*Estalkia*

*c) Kanpoko eta barruko fatxadak aldatzea, balio estilistiko berezia duten elementuei eutsiz. Betiere osaerak duen batasunari eutsi beharko zaio.”*

Horiek horrela, esan daiteke proiektuan proposatzen den jarduketa onargarria dela. Dena den, esan beharra dago, oro har arau subsidiarioen 53. artikuluan ezarritakoak betetzen diren arren, lehen solairuan proposatutako atea (ibilgailuentzat) ez datorrela bat solairu horrek izango duen erabilerarekin. Hortaz, mendebaldeko fatxada lehenengo solairuko planoan jasotako proposamenaren arabera gauzatu beharko da.

- **EKT ETA BESTEAK:** Ezinbestean bete beharko dira indarrean diren EKT eta aplikagarriak diren gainontzeko araudiak, hala nola, Tentsio Bajuko Instalazioen Erreglamendua eta Irigarritasun Araudia (1997ko Legea eta 68/2000 Dekretua).
- **HONDAKINEN KUDEAKETARAKO ARAUDIA:** Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 869,61 eurokoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (1.043,53 euro). Fidantza itzularazteko, obra amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketaren azken txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretuaren 6. artikulua). Oro har, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.
- **BESTEAK:** Txosten honetan zehazten ez den arren, indarrean den araudi aplikagarria betetzen ez duen ezaugarri/elementu/obra-ren bat barneratzen badu proiektuak, ezinbestean araudira egokitu beharko da, eta beraz, ez da txosten honetan inplizituki ontzat ematen.



Usurbilgo Udala



- ZERBITZUETAKO TXOSTENA: Azpiegitura eta zerbitzuei dagokionean, Zerbitzuetako Sailaren buruaren txostenera bideratzen da.
- 2. FASEAREN EXEKUZIO PROIEKTUA: Bigarren faseari lotutako etxebizitza gauzatu nahi izanez gero, dagokion baimena eskatu beharko da, eta horretarako beharrezkoa den Exekuzio Proiektua aurkeztu.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
  - Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
  - Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
  - Obraren egikaritze epe gehiengoa: urte 1.

### **ONDORIOAK**

Goian aipatutakoari jarraituz, Gaztelu baserria birgaitzeko Oinarrizko Proiektuari ALDEKO txostena idazten zaio, beti ere aipatu baldintzak betetzen diren artean.

Hauxe da esan behar nuena.

Usurbilen, 2015eko urtarrilaren 30a  
UDAL ARKITEKTOA  
Izta.: Joxean Erasun

Eskaera aztertu ostean, udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallusek, ondoko txostena eman du:

MANTENU ETA ZERBITZUAK SAILAREN TXOSTENA  
ESKAERA: Eraiki behar den etxebizitzaren Udal zerbitzuei lotuneak  
ESKATZAILEA: Hirigintza saila  
KOKAPENA: Aginaga 57 (Gaztelu baserria)  
ESP. ZENB: HZ.04/2014-0442

### **TXOSTENA:**

Aginagako Gaztelu baserriaren oinarrizko eta exekuzio proiektuko, Udal zerbitzuetako sareetako lotuneei buruzko txostena eskatzen du Hirigintza sailak.

Aurkeztutako proiektuan jasotzen den ur-kontagailuaren kokapena ez da zuzena. Udal zerbitzuetako ur sarean egingo da lotunea, eta ur kontagailua kokatuko da eraiki zen etxe berriaren aurrealdean dagoen kutxetan, gaur eguneko ur-kontagailuaren alboan.

Etxea eraikiko den inguruan ez dago Udal saneamenduko sarerik.

Baserrirako ur edangarriaren hartunea non egingo den zehazten duen planoak aurkeztuko da.

Ur hartuneak hurrengoak beteko ditu:.



Usurbilgo Udala



1. *Hartuneak eta instalazioa burutuko dira, ur horniketako CTE-DB-HS4 oinarrizko arauen arabera, udal zerbitzu teknikoen adieraziko duten tokian.*
2. *Aquarius markako kontagailuak gehienez 1" batekoa eta irakurketa moduluak instalatuko dira.*
3. *Ebaketako giltzak jarriko dira kontagailuen aurretik eta atzetik.*
4. *Itzultze aurkako balbula instalatuko da.*
5. *Kontagailua, hartunearen alboan jarriko da. Pan Inter kutxatila baten barruan, udal zerbitzu teknikoek adieraziko duten tokian. Kutxatila babesteko hormigoizko blokezko nitxoak eraikiko da.*
6. *Ura hartu baino lehen, ur edangarriko instalazioaren Industria Ordezkaritzak emandako baimena aurkeztuko da.*
7. *Sare nagusian ura kendu gabe egingo da hartunea.*
8. *Obra hasi aurretik, egungo instalazioen kokapena zehaztuko da. Udal instalakuntzak Udal zerbitzu teknikoen bidez eta beste instalazioak dagokion enpresa hornitzaileen bidez.*
9. *Hondatzen diren materialak birjarriko dira.*

Inguruko herriko ur sarearen kokapena hurrengoa da:



2015eko otsailaren 2an  
Zerbitzu eta Mantenu Saileko burua  
Felix Aizpurua Arzallus

Gauzak horrela, udal arkitektoaren eta udal aparejadorearen txostenak irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** JOSE LUIS URKIA ZABALA eta JUAN ARAMON URKIA ZUMETA jaunei, teilatupean etxebizitza bat moldatuz Gaztelu baserria eraberritzeko udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- Jose Miguel Toledo Etxepare arkitektoak 2014ko irailean (EHAE0 2014-10-09) idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren



Usurbilgo Udala



eta udal arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.

- Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako 52. artikuluan ezarritakoak beteko dira.
- Lehen solairuan proposatutako atea (ibilgailuentzat) ez dator bat solairu horrek izango duen erabilerarekin. Hortaz, mendebaldeko fatxada lehenengo solairuko planoan jasotako proposamenaren arabera gauzatu beharko da.
- Ezinbestean bete beharko dira indarrean diren EKT eta aplikaziozko diren gainontzeko araudiak, hala nola Tentsio Baxuko Instalazioen Erregelamendua eta Irisgarritasun Araudiak (1997ko Legea eta 68/2000 Dekretua) ezarritakoak.
- Oinarriko Proiektuan lehen solairuan aurreikusitako bigarren etxebizitza gauzatu nahi izanez gero, dagokion baimena eskatu beharko da, eta horretarako beharrezkoa den Exekuzio Proiektua aurkeztu.
- Zerbitzu instalakuntzei dagokionez, udal aparejadoreak bere txostenean aipatutakoak bete beharko dira.
  - x Aurkeztutako proiektuan jasotzen den ur-kontagailuaren kokapena ez da zuzena. Udal zerbitzuetako ur sarean egingo da lotunea, eta ur kontagailua kokatuko da eraiki zen etxe berriaren aurrealdean dagoen kutxetan, gaur eguneko ur-kontagailuaren alboan.
  - x Baserrirako ur edangarriaren hartunea non egingo den zehazten duen planoan aurkeztuko da.
  - x Ur hartuneak hurrengoak beteko ditu:
    - Hartuneak eta instalazioa burutuko dira, ur horniketako CTE-DB-HS4 oinarrizko arauen arabera, udal zerbitzu teknikoek adieraziko duten tokian.
    - Aquarius markako kontagailuak gehienez 1" batekoa eta irakurketa moduluak instalatuko dira.
    - Ebaketako giltzak jarriko dira kontagailuen aurretik eta atzetik.
    - Itzultze aurkako balbula instalatuko da.
    - Kontagailua, hartunearen alboan jarriko da. Pan Inter kutxatila baten barruan, udal zerbitzu teknikoek adieraziko duten tokian. Kutxatila babesteko hormigoizko blokezko nitxoan eraikiko da.
    - Ura hartu baino lehen, ur edangarriko instalazioaren Industria Ordezkaritzak emandako baimena aurkeztuko da.
    - Sare nagusian ura kendu gabe egingo da hartunea.
    - Obra hasi aurretik, egungo instalazioen kokapena zehaztuko da. Udal instalakuntzak Udal zerbitzu teknikoek bidez eta beste instalazioak dagokion enpresa hornitzaileen bidez.
    - Hondatzen diren materialak birjarriko dira.
- Uren isurketa indarrean dagoen arazketa Lege eta Araudiari lotetsiko zaio.



Usurbilgo Udala



- Fosa septiko bat ezarriko da, ur zikinak isuri aurretik bertan jasoz. Fosa Septikoari dagokionean, etxe horretako bizilagunen eta beharren proportzioan eraikiko da.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:
  - a. Obra hasteko epe gehiengoa: 6 hilabete.
  - b. Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 6 hilabete.
  - c. Obraren egikaritze epe gehiengoa: urte 1.

- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:

1. Obra lanen lizentziaren edo lizentzien kopia.
2. Obren Zuzendari Teknikoak izenpetu eta dagokion Kolegioak bisaturiko Amaiera Ziurtagiria edo obra lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla adieraziz, ezarriko ziratekeen baldintza bereziak ere kontutan izanda.

Horrekin batera CTE betetzen duela ziurtatuko duen agiria aurkeztuko da, Zuzendari Teknikoak zigilaturik eta Kolegioan bisaturik.

3. Egiaz burututako obra lanen planoak, lizentziaren funtsa zen proiektuari galdatzen zitzaizkion eskalez eta xehekapen mailaz.

1/200 edo 1/500 eskaladun udal kartografiaren gainean, lur zatiaren behin betiko egoeraren planoak ere aurkeztuko da, burututako eraikuntza eta hirigintzako obra lanak bertan jasoz eta ondoriozko sestra berriak aipatuz.

4. Eraikin edo instalazioen kanpoko aldean argazkiak, 13 x 18 zm.takoak, atzealdean baimenaren titularrak, obra lanaren Zuzendariak eta proiektuaren egileak izenpetuta, errealitatearekin bat datozela adieraziz.
5. Obralanean Zuzendariak izenpetu eta dagokion Kolegioak oniritzitako azken likidazioa, lan eta instalazioen egiazko kostea adieraziz.
6. Lurralde kontribuzioaren alta.
7. Lurraldeko Industria Delegazioak izenpeturik elektrindarraren hornikuntza sareko loturako buletinaren eta kasua balitz, gas metaketa eta banakuntzarako instalazioari dagokion egokitasun egiaztagiriaren kopia. Era berean, ur hornikuntzaren Industria Delegazioak izenpeturiko buletina aurkeztuko da.

- Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
  - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.



Usurbilgo Udala



- Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
- Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
- Indarrean dauden lege eta ordenantzen arabera segurtasun neurriak beteko dira.
- Baimena hau hirugarrenengo kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

**BIGARRENA:** Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 869,61 eurokoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (1.043,53 euro). Fidantza itzularazteko, obra amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketaren azken txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretuaren 6. artikulua). Oro har, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

1.043,53 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "Fidantza: HZ.04/2014-0442" jarriaz kontzeptuan.

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

## **2.- JESUS MARIA AIZPURUA LOPETEGI JAUNARI, BIDEGAIN ETXEAREN GOIALDEAN MENDIKO LURREI EUSTEKO HARRI-LUBETA ERAIKITZEKO UDAL BAIMENA EMATEA.**

Esp. Zenbakia: HZ.04/2014-0188

JESUS MARIA AIZPURUA LOPETEGI jaunak, Bidegain etxearen goialdean (N-634 errepidean 2,15 kilometro puntuan), mendiko lurrei eusteko harri-lubeta eraikitzeke udal baimena eskatu du.

### EXEKUZIO PROIEKTUA

Horretarako Kele Lasa eta Ibon Astegia arkitektoek sinatu, eta dagokion elkargoak ikus-onetsitako Exekuzio Proiektua aurkeztu du. Proiektua, honako hauek osatzen dute: Memoria, Planoak, Segurtasun eta Osasun Azterlana, Kalitate Kontrolerako Plana, Baldintza Plegua, Hondakinen Kudeaketarako Azterlana, Neurketak eta Aurrekontua.

### BIDE AZPIEGITURETAKO DEPARTAMENTUAREN TXOSTENA





Usurbilgo Udala



Proiektuarekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mugikortasun eta Bide Azpiegituretako Departamenduaren aldeko txostena aurkeztu du eskatzaileak. Obrak baimenduz, Bide Azpiegituretako zuzendari nagusiak 2014ko azaroaren 5ean emandako ebazpenean ondoko baldintzak ezartzen dira:

1. Lerroa soilik asteburuetan, jaiegunetan eta zubietan itxi ahal izango da. Lerroa ixteko epea gehienez hilabetekoa izango da.
2. Obrak baimen eskaerarekin batera aurkeztutako agiriaren arabera egin behar dira eta, baita ere, onartuta eta indarrean dagoen hirigintzako plangintzari jarraituz.
3. Baimen hau lanak egiteko bakarrik eman da, eta horren ondorioz ezingo da lerrokadura edo sarbiderik aldatu ere.
4. Obrako elementuek galtzada, bazterbide edo areka ez hartzeko neurri egokiak hartu beharko dira eta obra egin ondoren ingurua erabat garbi utziko da
5. Lerro bakarra hartzeko baimena ematen da eta bestea beti oztoporik gabe egongo da, ibilgailuek txandaka pasatzeko aukera izan dezaten, eta errepidea ez da inoiz itxiko zirkulaziorako.
6. Ingurua behar bezala seinalizatu behar da, MOPUren obren seinalizazioari buruzko 8.3.1.0 arauari jarraituz. Zirkulazioa len-o batera mugatu behar denean, bi langile egongo dira irratitelefono, eskuko seinale eta peto islatzaileekin edo, bestela, semaforoa jarriko da trafikoa txandaka antolatzeke. Langile horiek egongo diren lekua baino lehen, besteak beste, ondorengo seinale eta balizak jarriko dira zirkulazioko bi aldeetara:
  - TP-18 seinalea (Kontuz! Lanak), 90 cm-ko aldea duena.
  - TR-17 a edo b (galtzada estutzen da, eskuinetik edo ezkerretik), noranzkoaren arabera, 90 cm-ko aldea duena.
  - TR-301 seinalea (gehieneko abiadura 60 edo 70 km/h), 60 cm-ko diametroa duena.
  - TR-301 seinalea (gehieneko abiadura 40 km/h), 60 cm-ko diametroa duena.
  - TR-305 seinalea (aurreratzea debekatuta), 60 cm-ko diametroa duena.
  - TB-2 noranzkoko panel estuak, 160 x 45 cm-ko azalera dutenak.
  - TL-2 argi laranja keinukariak.
  - TB-6 konoak, 50 cm-ko altuerakoak, 5 metrotik behin zirkulazioari itxitako ingurua mugatzeko.
  - TR-500 seinalea (debekuen amaiera), 60 cm-ko diametroa duena, obrak hartutako inguruaren bukaerara iristean.
  - Semaforoak jartzen badira, TP-18 seinalearen ondoren TP-3 seinalea (semaforoak) jarri beharko da, semaforoetara dagoen tarte zehatza adierazten duen panelarekin.
  - Seinale horiek, konoek izan ezik, hondoa horia izango dute, argi-islatzaileak eta metalezkoak izango dira, eta beheko ertza lurretik metro batera edukiko dute.
7. Zirkulaziorako itxitako lerroa ireki bezain laster seinale guztiak tapatu edo kendu beharko dira. Bestela, Ustiapen Atalak kenduko ditu eskatzailearen kontura.



Usurbilgo Udala



8. Errepidea beti garbi eta behar bezala zainduta eduki beharko da eta errepidea ez zikintzeko beharrezko neurriak hartu beharko dira.
9. Gipuzkoako Trafiko Lurralde Bulegoari (VitoriaGasteiz kalea 3, 3. 20018 Donostia – Telefonoa: 012, Te lekop ia: 943 .538941 eta e.mail: trafikogi@trafiko.net) eta Errepideak Ustiatzeko Atalari (bidebaimenak@gipuzkoa.net) edo (Tfno. 943 112099) dei egingo zaie errepideko galtzadan eta herri jabarigunean obrak hasi baino gutxienez astebete lehenago.
10. Baimen hau Ustiapen Ataleko errepidezainen eskueran egongo da beti.

### **GIPUZKOAKO ERREPIDEEN HERRI JABARIGUNE ETA BABESGUNEETAKO OBRA ETA ERABILERETARAKO BALDINTZA OROKORRAK**

1. Emandako baimenak interesatuak ekarritako 1. dokumentazioan espresuki deskribatutako jarduera, lan eta obrak bakarrik babesten ditu eta, betiere, baimenaren testuak eta baldintzek jasotzen dituzten aldaketak kontuan hartuz. Horiez gain, beste zerbait egin nahi izanez gero, beste baimen bat eskatu beharko da.
2. Baimena jaso izanak ez du esan nahi beste lege xedapen batzuk aplikatuz beharrezkoak dituen bestelako lizentzia, baimen eta zilegidurak behar ez dituenik. Zehazki esateko, baimenak ea du kentzen hirigintza edo jarduera lizentzia eduki beharra eta ez du aurreiritzirik adierazten hura emateari buruz. Ez ditu barkatzen, ezta ere, Foru Aldundiko bertako beste organo batzuetan lizentzia hori lortzeko egin beharreko tramiteak.
3. Baldin eta emandako epean, edota, eperik ez badu, baimena eman eta ondorengo sei hilabeteen barruan baimendutako jarduera, lan edo obrak ez badira hasten, eskatzaileak almo hura alde batera utzi duela ulertuko da eta baimena automatikoki iraungita geratuko.
4. Emandako baimenak, era berean, iraungita eta ondorioz gabe geratuko dira, ondoko kausa hauetakoren bat gertatuz gero:
  - Jarduera, lan edo obrak sei hilabete baino gehiagotan eteten badira.
  - Egiteko eperik ematen ez denean, jarduera, lan eta obrak ez badira epe normal batean hasten eta amaitzen.
  - Baimenean jarritako baldintzak ez badira betetzen.
5. Jarduera, lan eta erabilera, galtzadari edo herri jabariko bestelako elementuei erasaten dietenean, errepideko zirkulazioa, ahal dela, ez galarazteko eta ez zailtzeko moduan egin behar dira.
6. Obrek edo erabilerek errepideetako zirkulazioari erasaten diotenean, 1987ko abuztuaren 3 1 ko Ministerioko Aginduak (1987ko irailaren 18ko BOE), obretako seinaleak eta tangak ipintzeari eta obren babesari, garbitasunari eta bukaerari buruzkoak xedatutakoa beteko da.
7. Aldundiak ez du hartuko bere gain erantzukizunik, baldin zirkulazioaren ondorioz edota errepidean, bidean edo haietako elementu funtzionaletan egiten diren artapen edo ustiapen lanen ondorioz, herri jabariguneko obretan edo instalazioetan ezer hausten, matxuratzten, hondatzen edo kalteturik gertatzen bada.
8. Bideen herri jabariko erabilera era aprobetxamenduen jabeek izango dute erantzukizuna, baldin eta beren instalazioek errepideari, bideari,



Usurbilgo Udala



haietako elementu funtzionalei edo erabiltzaileei kalterik edo zauririk eragiten badiete.

9. Herri jabariguneko instalazioen jabeak behartuta daude, gainera, instalazioak beren kontura aldatzera, baldin eta errepide edo bideari kalterik egiten badiote, edota errepide edo bideak aldatzeko edo hobetzeko proiekturen baték beharrezko egiten badu.
10. Jarduera, lan edo obrak egiterakoan debekatuta dago materialak edo bestelako gauzak errepideko galtzadan uztea, baimena ez bada espresuki errepidearen zabalgunean bertan jarduera, lan edo obraren bat egiteko.
11. Obrak egiteko edo erabileretarako baimena dutenek elementuak segurtasun baldintza onetan eduki beharko dituzte, errepiderako eta han dabilzanentzat arriskurik ez dadin egon.
12. Baldin eta, ebazpen honetan baimendutako lanak, 11. errepidean, herri jabarigunean edo babesgunean egin behar badira, eskatzaileak Laneko Arriskuen Prebentzioaren Legea bete beharko du.

#### **OHARRAK**

1. Baimena arautzen du 2006ko ekainaren 6ko 1/2006 Foru 1. Dekretu Arau-emaileak, Gipuzkoako Errepide eta Bideen Foru Arauaren testu bateratua onartzekoak (2006ko ekainaren 21eko Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 117. zenbakia)
2. Galtzadako ertza edo kanpoko marra hau izango da: zolatuta dagoen eta automobilak ibiltzeko den errepide zatiaren kanpoko ertza edo marra.  
Laugunearen ertza edo kanpoko marra hau izango da: errepideko luerauzketa edo lubetetako ezpondek eta, hala badagokio, bideen fabrika obretako eta horien zimenduetako kanpoko parametroek lursail naturalarekin duten intersekzioko marra.  
Zubi, zubibide, tunel, egitura edo antzeko obretan, laugunearen ertza edo kanpoko marra hau izango da: obren ertzak lursailaren gainean duen proiektzio bertikala.  
Lursail naturala errepidearen maila berdinean dagoenean, hau izango da: arekaren kanpoko marra eta, arekarik ez badago, bide zolatuaren kanpoko marratik 50 zentimetrora dagoen marra.  
Distantziak horizontalean eta errepidearen ardatzaren perpendikularrean neurtuko dira beti.

#### **URA – UR AGENTZIAREN TXOSTENA**

URA – ur agentziak 2015eko urtarrilaren 12an eman du bere txostena. Bertan hitzez hitz honela dio txostenak:

**GAIA: USURBILGO (GIPUZKOA) UDALERRIAN, ORIA IBAIAREN ESKUIN ERTZEKO UREN POLIZI CUNEAN ETA GI-634 ERREPIDEAREN ONDOAN TERRENOA EGONKORTZEKO HARRI LUBETA BAT EGITEKO LANAK.**

2014/12/04ko datarekin izan zuen sarrera Uraren Euskal Agentziaren ekialdeko kantauriar arroen (Gipuzkoa) Bulego honetan, Usurbilgo



Usurbilgo Udala



(Gipuzkoa) udalerrian erreferentziako lanak egin ahal izateko Jesus M<sup>a</sup> Aizpurua Lopetegi jaunaren baimen eskariak.

Lanak, Usurbilgo (Gipuzkoa) udalerriko Txikierdi auzoan aurkitzen den Bidegain etxearen parean, Oria ibaiaren eskuin ertzeko uren polizi gunean, N-634 errepidearen lurra eusteko 25 m.-ko luzera izango dituen karaitz arrokez osatutako harri lubeta bat egitean datza.

Oria ibaia erreferentziako tokitik igarotzen den tartean gutxi gorabehera 800 km<sup>2</sup>-ko arro hidrologikoa dauka eta honi, III. Iparraldeko Plan Hidrologikoan jasotako abakoaren arabera, 100 urteko itzulera epea duten uholde boladentzako ( $Q_{100}$ ) 1115 m<sup>3</sup>/s eta  $Q_{500}$ -erako 1675 m<sup>3</sup>/s-ko diseinuzko emariak dagozkie. Tokiko uholdagarritasunaren analisiak erakusten du ekintzak egingo diren eremua ez dela Oria ibaiaren ezohiko uholde boladengatik uholdatzen.

Ingurugiro alderditik Oria ibaiaren tarte honetako ertzak ondo artatutako erriberako landaredia erakusten dute.

Proposamen honetan aurreikusitako ekintzekin ez da Oria ibaiaren ubidea inbadituko eta ez da berezko terrenoaren erliebean aipatzeko moduko aldaketarik egingo.

Guzti hau dela eta, Bulego honetatik jakinarazten da Usurbilgo (Gipuzkoa) udalerrian, Oria ibaiaren eskuin ertzeko uren polizi gunean eta GI-634 errepidearen ondoan terrenoa egonkortzeko harri lubeta bat egiteko lan hauetarako ez dela beharrezkoa Arroko Organismoak ematen duen baimena.

## UDAL ARKITEKTOAREN TXOSTENA

Eskaera eta espedienteko dokumentazioa aztertu ostean, udal arkitektoak, Joxean Erasun Arancón jaunak, ondoko txostena eman du:

**BULEGO TEKNIKOA**  
**Udal Teknikariak Alkate andreari**  
**LURREN MUGITZEAK**  
**N-634 ERREPIDEAN HARRI LUBETA EGITEKO BAIMEN**  
**ESKAERARI TXOSTENA**

---

KOKAPENA: N-634 Errepidean 2,15 K.P1 Usurbil  
IDATZIAREN DATA: 2015eko urtarrilaren 28  
ESKATZAILEA: Jesus Mari Aizpurua Lopetegi  
ESPEDIENTE ZENBAKIA: HZ04/2014-0188  
AURREKONTUA: 7.255,00 € (PEM)  
HONDAKINEN KUDEAKETARAKO AZTERLANA: 276,00 € Fidantza  
(%120): 331,20 €

---

### **AURREKARIAK**



Usurbilgo Udala



- 2014ko apirilaren 28an Jesus Mari Aizpuruak Bide Gain etxearen inguruan (N-634 errepidean, 2.15 K.P1-ean) harri-lubeta egiteko baimena eskatu zuen.
- 2014ko azaroaren 5ean interesdunak berriz ere obra baimena eskatu du, eta horretarako beharrezkoa den proiektua aurkeztu.
- 2014ko azaroaren 11n Gipuzkoako Foru Aldundiak (Mugikortasun eta Bide Azpiegituretako Departamentuak) aldeko txostena idazten dio "Eraikina eraberritzea eta lerroa ixtea harri-lubeta egiteko" eskaerari.
- 2014ko azaroaren 26an 3456 zenbakidun idazkiaren bitartez Uraren Euskal Agentziaren baimena ere aurkezteko eskatzen zaio interesdunari.
- 2015eko urtarrilaren 28an URA Agentziaren baimena aurkeztu du eskatzaileak, dagokion udal baimena lortzeko.

## TXOSTENA

Jesus Mari Aizpuruak Bide Gain etxearen inguruan (N-634 errepidean, 2.15 K.P1-ean) harri-lubeta egiteko baimena eskatu du. Helburu horrekin aurkeztutako proiektua Kele Lasa eta Ibon Astegia arkitektoek sinatua da., eta dagokion elkargoak ikus-onetsia. Proiektua honako hauek osatzen dute: Memoria, Planoak, Segurtasun eta Osasun Azterlana, Kalitate Kontrolako Planoa, Baldintza Plegua, Hondakinen Kudeaketarako Azterlana, Neurketak eta Aurrekontua. Horrekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Mugikortasun eta Bide Azpiegituretako Departamenduaren aldeko txostena aurkeztu du eskatzaileak, eta orain, Ur Agentziaren baimena.

Proiektuaren helburua da Usurbilgo udalerrian (N-634 errepidean 2,15 K.P1-ean) mendiko lurrei eusteko harri-lubeta gauzatu ahal izateko baimena lortzea.

Dokumentazioa aztertu ondoren, ikusirik indarrean den udal araudiak eskatzen dituen baimen eta dokumentuak aurkeztuak direla (ikus udal arkitektoaren txostena, 2014ko azaroaren 25ekoa), honakoa esan daiteke:

- **HONDAKINEN KUDEAKETARAKO ARAUDIA:** Aurkeztutako Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 276 €-koa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120-ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (331,2 €). Fidantza itzularazteko, obrak amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketa amaiera txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretua 6. artikulua). Orohar, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

## ONDORIOAK



Usurbilgo Udala



Goian esandakoari jarraiki, ALDEKO txostena idazten zaio Usurbilgo Udalerrian (N-634 errepidean 2,15 K.P1-ean) mendiko lurrei eusteko harri-lubeta gauzatzeko baimen eskaerari, honako baldintzekin:

- Gipuzkoako Foru Aldundiak ezarritako baldintzak bete beharko dira ezinbestean.
- Behin obra burututa, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da:
  - Bertako zuzendari eskudunak izenpetu eta dagokion Elkargoak oniritziarik, lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla ziurtatzen duena.
  - Lanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Elkargoak oniritzitako azken likidatzea, lanen egiazko kostua adieraziz.
- Obra baimenaren epeak:
  - Obra hasteko gehienezko epea: 3 hilabete.
  - Obra geldituta egon daitekeen gehienezko epea: 3 hilabete.
  - Obra egikaritzeko gehienezko epea: 6 hilabete

Usurbilen, 2014ko azaroaren 25ean.

UDAL ARKITEKTOA

Izta.: Joxean Erasun Arancón

Gauzak horrela, udal arkitektoaren txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

## ERABAKIA

**LEHENDABIZI:** JESUS MARIA AIZPURUA LOPETEGI jaunari, Bidegain etxearen goialdean (N-634 errepidean 2,15 kilometro puntuan), mendiko lurrei eusteko harri-lubeta eraikitzeke udal baimena ematea, ondorengo baldintzapean:

- Kele Lasa eta Ibon Astegia arkitektoek 2014ko urrian (EHAE0 2014-10-20) idatzitako Proiektuari egokiturik egingo dira obrak, beti ere, jarraian aipatuko diren eta udal arkitektoak bere txostenean ezarritako baldintzekin kontraesan batean sartu gabe.
- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN MUGIKORTASUN ETA BIDE AZPIEGITURETAKO DEPARTAMENDUAK EZARRITAKO BALDINTZAK BETEKO DIRA EZINBESTEAN.
- Ezinbestean bete beharko dira indarrean diren EKT eta aplikaziozko diren gainontzeko araudiak.
- OBRA BAIMENAREN EPEAK:



Usurbilgo Udala



- a) Obra hasteko epe gehiengoa: 3 hilabete.
  - b) Obra geldituta egon daitekeen epe gehiengoa: 3 hilabete.
  - c) Obraren egikaritzea epe gehiengoa: 6 hilabete.
- Behin obrak bukatu ostean, eta Lehen Erabilera baimena eskatuko da ondorengo dokumentuz lagundurik:
    - Bertako zuzendari eskudunak izenpetu eta dagokion Elkargoak oniritzirik, lanen bukaeraren egiaztagiria, lan horiek lizentziaren funtsa den proiektuaren arabera gauzatu direla ziurtatzen duena.
    - Lanen Zuzendariak izenpetu eta dagokion Elkargoak oniritzitako azken likidatzea, lanen egiazko kostua adieraziz.
  - Lege arau eta ordenantzen arabera, obra egiteko baimenak balioa izatekotan, baimenduak bete beharreko baldintza orokorrak hauek dira:
    - Eraikuntzako Ordenantza orokorrak beteaz egingo da obra.
    - Euskararen Udal Ordenantzaren 41. atalak dioenari jarraituta, obra garaian beharrezko diren trafiko seinale eta iragarpenak euskaraz jarriko dira.
    - Obra egin bitartean inor kaltetuz gero, ezingo du baimenaz baliatu kalteen erantzukizun zibila ekiditeko.
    - Indarrean dauden lege eta ordenantzen araberako segurtasun neurriak beteko dira.
    - Baimena hau hirugarrenen kalterik gabe eta jabetzaren salbuespenean ematen da.

**BIGARRENA:** Hondakinen Kudeaketarako Azterlanaren arabera, obralan eta eraisketa hondakinen kudeaketaren balorazioa 276 eurokoa da. 112/2012 Dekretuaren 5. artikuluan finkatutakoaren arabera, aurrekontuaren %120ko fidantza jarri beharko da obra baimena ematearekin batean (331,20 euro). Fidantza itzularazteko, obra amaitutakoan, haren itzultzea eskatu beharko da hondakinen kudeaketaren azken txostena aurkeztuz (112/2012 Dekretuaren 6. artikulua). Oro har, bete beharko dira RD105/2008 eta 112/2012 Dekretua, ezinbestean.

331,20 €-ko fidantza, Kutxabankeko 2095 5069 07 1060024832 kontu korrontean sartuko da, interesatuaren izen-abizenak eta "*Hondakinen Fidantza: HZ.04/2014-0188*" jarriaz kontzeptuan.

**HIRUGARRENA:** Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaileari emango zaio.

**Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, Alkate andreak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 8:35ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**